

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

##### Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

#### **Onespena ematea “Ekialdeko 3. zabalpena- Salburua parkea” zenbakia 15. sektoreko plan partzialaren seigarren xedapen-aldakuntzaren proiektuari, eta hasierako onespena ematea xedapen-aldakuntza horri**

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko otsailaren 14an egindako ohiko bilkuran:

1. Onespena ematea Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko “ekialdeko 3. zabalpena- Salburuko parkea 15. sektoreko (E-3 eta E-4 enklabeak) plan partzialaren seigarren xedapen aldakuntzaren proiektuari, zein 2020ko urtarrilaren 21ean aurkeztu baitzuen Saski Baskonia SAden ordezkariak.

2. Hasierako onespena ematea Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko “ekialdeko 3. zabalpena- Salburuko parkea 15. sektoreko (E-3 eta E-4 enklabeak) plan partzialaren bosgarren xedapen aldakuntzari, bat etorrita dosierrean dagoen 2020ko urtarrilaren 21eko proiektuarekin.

3. “Ekialdeko 3. zabalpena-Salburuko parkea” 15. Sektoreko E-3 eta E-4 enklabeen eremuan lizentzia-emateak eta erantzukizunpeko aitorpena nahiz aurretiko komunikazioen tramitazioak etetea, aldaketa hori prestatze eta idazte aldera, hura behin betiko onetsi arte; edonola ere, gehieneko epea urtebetekoa izango da, erabaki hau ALHAOn argitaratzen denetik hasita.

4. Dosiera jendaurrean jartzea, hogeie egunerako, ALHAOn eta zabalkunderik handieneko egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, horrek eragiten diola uste duen orok aztertzerik izan dezan, baita egokitzen dituen alegazioak edo oharak aurkezterik ere.

5. Betoñuko Administrazio Batzarrari hasierako onespeneren berri ematea, eta aldaketaren dosier teknikoaren kopia osoa bidaltzea, hogeie eguneko epean txostena eman dezan; behin epe hori igaro ondoren erantzunik edo ebazpenik jaso ez bada, onesteko izapideak aurrera jarraituko du.

6. Honen berri ematea aurrerapen-dokumentua idazteko kontsultatu diren entitateei (Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza, Kultura Ondarearen Zuzendaritza eta Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza; Ebroko Konfederazio Hidrografikoa, Ura- ren Euskal Agentzia; Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritza eta Ingurumen Zuzendaritza; Ekologistak Martxan Alava, Hontza Natura Taldea, GADEN (Natura Defendatu eta Ikertzeko Arabako Taldearekiko) eta Recreativa Eguzkizaleak), egoki baderitzote, alegazioak aurkez diezazkioten hasierako onespena eman zaion agiriari, horretarako 45 eguneko epea emanaz.

Dosiera Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25, behea—, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko otsailaren 14an

*Alkate-lehendakaria*  
**GORKA URTARAN AGIRRE**